**UDALBATZARRA/ PLENO MUNICIPAL Nº 01/13**

LASARTE-ORIAKO UDALBATZARRAK **2013KO URTARRILAK 8AN** EGINDAKO **OHIKO BATZARRALDIAREN** AKTA**.**

ACTA DE LA **SESIÓN ORDINARIA** CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA EL DÍA 8 DE ENERO **DE 2013.**

**ETORRITAKOAK:** **ASISTENTES:**

| | | |
|---|---|---|
| ALKATE LEHENDAKARIA:<br>ALCALDE-PRESIDENTE | Pablo Barrio Ramírez jn. | (BILDU) |
| ALKATEORDEAK:<br>TENIENTES DE ALCALDE | Nerea Sánchez López and. | (BILDU) |
| | Gorka Lizarraga Erro jn. | (BILDU) |
| | Alaitz Mendizabal Urdapilleta and. | (BILDU) |
| | Tasio Arrizabalaga Azpiroz jn. | (BILDU) |
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES | Jesús Mª Zaballos de Llanos jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Iñaki Múgica Flores jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Nerea Artamendi Erro and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Txus Alonso Ocáriz jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Lourdes Acevedo Beldarrain and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Martín Moreno García jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Estitxu Alkorta Barragán and. | (EAJ-PNV) |
| | Boris Nogales Benito jn. | (EAJ-PNV) |
| | Ana Isabel Prieto Narciso and. | (LOHP-PCLO) |
| | Juan José Castro Domínguez jn. | (LOHP-PCLO) |
| | Vanessa Vélez de Pablos and. | (PP) |
| | Mª Luisa Zubiri Bustillo and. | (Concejal No adscrito) |
| IDAZKARIA:<br>SECRETARIO | Francisco Xabier A. Egea Jauregi jn. | |

**EZ ETORRITAKOAK:** **NO ASISTENTES:**

Lasarte-Oriako udaletxeko batzar-aretoan, 2013ko 8 de enero 18:30 zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako udalbatzar osoa bildu zen, Pablo Barrio Ramírez alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:30 horas del día 8 de enero de 2013, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Pablo Barrio Ramírez, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jauregi, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Udalbatzarra eratzeko "quorum" nahikoa badagoenez gero, alkate jaunak eratua deklaratzen du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

**1. LASARTE-ORIAKO BILDU UDAL TAKDEAK AURKEZTUTAKO HERRIRA MUGIMENDUAREN MOZIOA: "EUSKAL PRESOEN EGOERAREN INGURUAN".**

**1.MOCIÓN DEL MOVIMIENTO HERRIRA, PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL BILDU LASARTE-ORIA, RELATIVA A LA SITUACIÓN DE LOS PRESOS VASCOS.**

Alkate jaunak hartzen du hitza Herrira mugimenduak aurkeztutako mozioa irakurtzeko, jarraian literalki transkribatzen dena.

Toma la palabra el Sr. Alcalde para dar lectura a la moción presentada por el movimiento Herrira, que se transcribe literalmente a continuación.

*HERRIRA mugimenduak, Giza eskubideen Deklarazioaren edukia aintzat harturik, Euskal presoei aplikatzen zaizkien espetxe neurri salbuespenezkoak indarrik gabe uztea eskatzen du.*

*Zehazki, sakabanaketa-politikari amanera ematea eskatzen du, kartzelan dauden pertsonek eskubidea baitute zigorra etxetik hurbil betetzeko. Eskatzen du, bestetik, gaixotasun larria duten hamahiru presoak libre gelditu daitezela, eta Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia bete dadila, eta beraz, aska dístatela zigorra bete duten 67 presoak (haien artean Mitxel Turrientes, Ina Orotegi, Kepa Rezabal "Txurdi" eta Nikolas Francisco daude, herri honetako bizilagunak eta bere zigorra betea dutenak).*

*Salbuespen neurri hauek sufrimendu handia eragiten dute gizartean, zuzenean neurri horiek jasaten dituztenei, baita gizarte osoari ere, apustu garbia egin baitu bakearen eta giza eskubideen errespetuaren alde. Eta sufrimendu hau buka dadin, neurri hauek desagerrarazteko, asko litzateke legeria arrunta aplikatzea.*

*HERRIRAk egiaztatu du gehiengo handiak bere egiten dituela aipatutako eskaerak. Horregatik, proposamena egiten die herritarrei giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko, gutxienekoen taula bat presten eta erbesteratuen problemari heltzeko, modu eraikitzailean eta egiazko konponbideak bilatu nahian betiere.*

*Eskaera honen atzean gizartea dagoela ikusarazteko, akordio sozial zabal honen ispilu izan dadin, HERRIRA mugimenduak manifestazio handi baterako deia egin du. Mobilizazioa Bilbon izanen da, urtarrilaren 12an, goiburu honekin: "Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira".*

*Horregatik guztiagatik, ERABAKI hauek hartzeko eskatzen diogu Lasarte-Oriako Udalari:*

1. *Espainiako Gobernuari eskatzea presoen eta haien hurbilekoen giza eskubideak errespetatzen dituen espetxe política aplikatzeko. Neurri hauek zigorra bizilekutik hurbil betetzeko eskubidea eta osasun eskubidea bermatu behar dituzte, baita beraien zigorra bete duten presoen askatasuna eta zigorraren 3/4ak ( edo 2/3ak) bete dituztenen baldintzapeko askatasuna.*
2. *Udalaren kezka adieraztea asteburuaro presoen senitarteko eta lagunek sufritzen duten arriskua dela-eta, eta elkartasuna adieraztea sakabanaketaren biktima guztiei.*
3. *Espainiako Gobernuari eskatzea bete dezala Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 2012ko uztailean emandako epaia, eta ondorioz, libre utz ditzala lehenbailehen gure bizilagun diren Mitxel Turrientes, Ina Orotegi, Kepa Rezabal "Txurdi" eta Nikolas Francisco.*
4. *Aditzera ematea udala prest dagoela herriko bizilagun presoen giza eskubideen defentsan lan egiteko, eta haien senitarteko eta hurbilekoen egoera arintzeko.*
5. *Horregatik guztiagatik, udal honek bat egiten du Herrira mugimenduak deiturik urtarrilaren 12an Bilbon "Giza eskubideak, konponbidea, bakea, Euskal presoak Euskal Herrira" goiburuarekin aginen den mobilizazio orokorrarekin, eta adierazten du prest dagoela akordio sozial zabal horren alde lan egiteko.*
6. *Udal honek erabaki honen berri emanen die herritarrei, eta bakearen eta giza eskubideen errespetuaren aldeko lanean inplikatu daitezen animatuko ditu udalerriko bizilagunak.*

Bozketara jarrita Lasarte-Oriako udalbatzarrak aldeko bost botorekin ( 5 BILDU), aurkako zazpi botorekin ( 6 PSE-EE-PSOE, 1 PP) eta bost abstetziorekin ( 2 EAJ-PNV, 2 PCLO, 1 Zubiri andrea), **BAZTERTZEN** du mozio hura.

Sometida a votación, el Pleno de la Corporación de Lasarte-Oria, con cinco votos a favor ( 5 BILDU), siete votos en contra ( 6 PSE-EE-PSOE, 1 PP) y cinco abstenciones ( 2 EAJ-PNV, 2 PCLO, 1 Sra. Zubiri) **RECHAZA** aquella moción

Bozketaren azalpenen txanda irekita, Alkorta andreak hartzen du hitza adiearazteko mozioak bi atal zituela bereziki, alde batetik presoen eskubideen urratze aldera egiten den salaketa eta beste alde batetik mobilizazioa egiteko eskaera. Bigarren atal honen inguruan deialdiarekin ez dutela bat egiten azaltzen du eta lehenengo atalari dagokionez aldiz beraien posizionamendua agertzeko honako hau esaten du: "ETAk Ayeteko manifestuari erantzunez behin-betiko ekintza armatua utzi izana

adieraztea aintzat hartzen dutela. Bigarrenez, berrezten du beharrezkoa izango litzatekeela adiskidetzean, aitorpenean, konpentsazioan eta biktima guztien laguntzan aurreratzea, sortutako mina aitortuz eta pertsonen eta gizartearen zauriak sendatzen lagunduz. Eta hirugarrenez, Euskal presoak jasaten ari diren bere oinarrizko eskubideen urraketen aurrean, Eusko Legebiltzarrak 2006ko urriaren 6an Euskal presoen eskubideen defentsarako konpromosoari buruz onartutakoa berrezten dutela, hau da, oinarrian presoak euren gizarte eta familia ingurunetik gertugoko kartzelan egon behar dutela, Espainiako Espetxe Erakundeei Euskal preso guztien oinarrizko eskubideak errespeta ditzala, eritasun larriak jasatzen dituzten presoei berehala 92. artikulua aplikatzea eskatzen dela; legearen aplikazio positiboa egin dezala eta hala zigorraren parterik haundiena bete duten eta legearen arabera baldintzapean aske egon daitezkeen presoak askatuak izan daitezela; Espainiako Gobernuari ahalik eta lasterren eskualda ditzaizkiola Euskal Autonomi Erkidegoari espetxeei buruzko eskumenak eskatzen zaiola ere bai konpromezu horretan; eta bukatzeko giza eskubide guztiak inolako salbuespenik gabe defendatzeko konpromezua baita herritar guztiak preso daudenak ere bai eskubidez eta askatasunez politikan parte hartzeko eskubidea barne baliatzea bermatu beharra ere aldarrikatzen da.

Alkate jaunak adierazten du Lasarteko Bildu taldeak bat egiten duela textu honekin, nahiz eta textu hau Herrira mugimenduak sortua izan. Bestalde bere aburuz mozio honen aurka bozkatzeak, Alderdi Popularrak erabiltzen ari den politikari babesa ematea suposatuko lukeela, halaber norberak jakingo duela zergatik jokatzen duen horrela.

**2.- GALDERA ETA ERREGUAK** **2.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

▸ Por el Sr. Zaballos, portavoz del PSE-EE-PSOE

1.- Ejecución presupuestaria. El Sr. Zaballos señala que en pasadas legislaturas se ha reclamado al Partido Socialista la no ejecución del 100% del presupuesto, cuando se trabajaba con un presupuesto que rondaba los 30-33 millones de euros. En estos momento, en el 2012 el equipo de gobierno aprobó un presupuesto de en torno a unos 25 millones pero tampoco han hecho una ejecución presupuestaria completa. Aclara que no es una crítica a que no se haya ejecutado completamente, sino que lo que les preocupa son ciertas inversiones que consideran importantes como son:
a) obras reforma en la trasera de Blas de Lezo, una inversión de 200.000€ que solucionaría los problemas de humedades en los garajes de Michelin. Añade que no han tenido información ni sobre el proyecto ni sobre una posible licitación. Por todo ello, quiere saber cuál es el estado de este proyecto.
b) colocación de paneles informativos. Señala que en la comisión en la que se trató el proyecto de presupuestos, el Partido Socialista presentó una enmienda para la colocación de paneles informativos en el municipio, comisión en la que se les informó de que desde el departamento de Servicio Públicos se iban a instalar una serie de paneles, por lo que el Partido Socialista retiró su enmienda. Habida cuenta de que todavía no se han instalado, quiere saber qué noticias hay sobre este tema.

c) implantación del 5º contenedor. Señala que se aprobaron una serie de partidas presupuestarias en relación a la implantación en el municipio de Lasarte-Oria del 5ª contenedor, que iban destinadas por un lado a la publicidad para la concienciación, a la compra de bolsas de basura de fibra de patata para entregarlas a los vecinos para que pudieran empezar con este sistema de recogida y por otro lado a la adaptación de los contenedores soterrados. Afirma que estas partidas no se han ejecutado y que ni siquiera se ha constituído la Comisión Especial del 5º contenedor, cuya creación fue aprobada por este pleno. Por tanto, aduce que se está haciendo una gran dejación al respecto desde el gobierno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria. Pregunta si la intención del equipo de gobierno es dejar que se agote la legislatura sin constituirla.

2.- Comisión de Sanidad, Consumo, Comercio y Medioambiente. El Sr. Zaballos manifiesta que hace ya ocho meses, desdel del 15 de mayo que no se convoca esta comisión, cuando saben que ha habido actividades relacionadas con esta comisión. Considera que al menos debería haber sido convocada para dar cuenta de la información, como al menos se hace en otras comisiones, aunque no lleven los puntos a debatir.

3.- Consejo de Planeamiento Urbanístico y Consejo Escolar Municipal. El Sr. Zaballos critica que en lo va de legislatura no se ha convocado ninguno de estos dos órganos.

4.- Incidentes en el PIN. Señala el Sr. Zaballos que han tenido conocimiento de la sucesión de tres niños accidentados en una de las atracciones expuestas en el PIN. Le gustaría saber los pormenores de estos sucesos, y si por parte del gobierno se ha valorado la posible negligencia de la empresa adjudicataria del servicio.

5.- Servicio de la cafetería sita en la casa de Cultura. Desde el Partido Socialista proponen que se ceda este espacio a la recién creada Plataforma de Parados de Lasarte-Oria con el doble objetivo de hacer uso de ella y poder obtener ciertos ingresos para su funcionamiento, y además para que ese espacio recupere la vida que tenía anteriormente la casa de cultura.

6.- Colocación de algas en la N-1. Tal y como expresaron en un escrito presentado en el registro de entrada del Ayuntamiento, trasladan queja de los vecinos de la zona de Cocheras de que alguna persona está utilizando esa zona para esparcir algas. Pide que se hagan las gestiones oportunas para dar solución a este problema y que las algas sean retiradas cuanto antes.

El Sr. Alcalde y algunos concejales responsables en las materias aludidas, pasan a dar respuesta a las preguntas planteadas por el Sr. Zaballos.

1.- Obras de trasera de Blas de Lezo. Sanchez andreak, Hirigintza Batzordeko zinegotzi burua den einean, hartzen du hitza adierazteko gai hau ez dagoela baztertuta, baizik eta Hirigintzako sailean lan pilaketa egon dela beste kontu batzuekin eta horregatik pixka bat atzeratu dela. Hala ere, proiektu hau prioritarioa dela beraientzat gehitzen du, proposamen bat badagoela jabeei iaz erakutsi zitzaielarik eta beraien helburua berriro jabeekin berriro biltzea eta proiektuaren gora beherak eta atzerapen horren zergatiak azaltzea. Bukatzen du beraien intentzioa aurten proiektu hori burutzea dela esanez.

2.- Paneles informativos. La Sra. Prieto en calidad de Presidenta de la Comisión de Obras y Servicios señala que lógicamente se colocarán, pero que han optado por la opción de que sea la propia brigada la que los construya comprando las piezas separadas. Por otro lado, indica que se colocarán cuando sea seleccionado el nuevo logo del ayuntamiento, ya que lo llevarán impreso.

3.- 5º contenedor. Honen inguruan Alkate jaunak adierazten du bere garaiean onartutako batzordea hilabete hontan bertan sortuko dela, eta denen artean ondakinen arazoaren aurrean konponbide bat adostuko dutela.

4.- Consejo Escolar y Consejo de Planeamiento. Alkate jaunak onartzen du orain arte ez direla bi organu hauen deialdirik egin, baino hemendik gutxira deituko direla adierazten du.

5.- Incidencias en el PIN. Arrizabalaga jaunak adierazten du jakinan gainean daudela gertatu diren hiru ixtripu horien inguruan. Hauek 7-12 urteetako umeentzat zeuden bi koltxonetatan gertatu zirela, begiraleekin hitz egin dela eta prinzipioz ez dela aurreikusten enpresaren negligentziarik baizik eta jardueraren ondorio bat.

6.- Cesión de la cafetería de la Casa de Cultura. Alkate jaunak adierazten du aukera bat izan daitekeela eremu hori langabetuei uztea. Halaber eguberrien aurretik udaleko talde politiko guztiak langabetuen elkarte horrekin bilera bat izan zutela, bertan lan dinamika bat planteatu zelarik. Bestalde azaltzen du gobernu taldeak badaukala honen inguruan bere plangintza aurtenegiteko. Alderdi Sozialistak egindako proposamena jasotzen dutela gehitzen du eta landuko dutela aukera horren bideragarritasuna.

7.- Problema de las algas en Cocheras. Alkate jaunak jakitun dela arazo honetaz adierazten du, argi dagoela algak ezin direla herriko puntu horretan egon, eta alternatiba bat bilatzen ari direla arazo hau konpontzeko.

Eta, beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 19:00 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19:00 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.